

# AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



## Hauteskunde-kanpaina betean murgildu gara

Apirilaren 21ean Eusko Legebiltzarra berritzeko hauteskundeak deitu dituzte. EAEko alderdi nagusiak kanpaina murgildu dira / 6-9

## *euskara bada errenta*

**ERRENTA  
AITORPENA  
EUSKARAZ**

APIRILAREN  
8TIK AURRERA  
AUTOLIKIDAZIOA  
ONARTZERAKOAN,  
SAKATU EUSKARAREN  
AUKERA



Informazio gehiago:  
[www.andoaindarraeuskaraz.eus](http://www.andoaindarraeuskaraz.eus)  
[www.urnieta.eus](http://www.urnieta.eus)





Maria Angeles Segurola Irrintzi taberna-jatetxearen barran. AIURRI

# “Ondo, azkar eta salneurri ona dira gure ikur”

**MARIA ANGELES SEGUROLA** IRRINTZI TABERNAKO NAGUSIA

Hogei urte bete zituen martxoan Irrintzi tabernak. Maria Angeles Segurola nagusiak 62 urte ditu, eta erretiroa hartzeko aukera aztertzen hasia da

**Andoni Urbistondo** ANDOAIN

Bazkardo auzoak eta Ama Kandida etorbide bukaerak badute ezinbesteko osagaia Andoaingo hiri barruko paisaian: Irrintzi taberna.

Azken bi hamarkadatan gutxi izango ziren hara bertaratu ez diren auzotarrak, andoaindarrak, edo eskualdeko beste herrietako langileak. Mugimendu itzela dago ia beti tabernan, eta baz-

kalostean hartu du atsedean apur bat Maria Angeles Segurola nagusiak, Aiurri astekariari erantzuteko, telebistan txirrindularitza probak ikusten dituen bitartean.

**Nor zaitugu, Maria Angeles?**

Maria Angeles Segurola naiz. Igeldon jaioa, 62 urte ditut, eta duela 43 urte Urnietan hasi nintzen bizitzan. Beti ostalaritzan lan egin dut. Igeldon aurrena, eta Mikel eta Jon haur txikiak zirela Igeldoko lana utzi nuen, urrun samar geratzen zelako niretzat. Urnietako industria-gunean aritu nintzen ondoren, Onddi tabernan, eta gero taberna nik neuk hartzea eskaini zidaten, alokairuan. Hala egin nuen, eta bost urte eman nituen Onddi-n nagusi eta langile. Ondoren Irrintzi taberna salgai zegoela jakin nuen, Andoainen. Hornitzaileekin hitz egin nuen, informazio pixka bat bildu eta hartu beharreko negozioa zela esan zidaten, bai edo bai. Lana ondo egiten zela ikusita Irrintzi taberna hartu nuen nire kargu.

**Hogei urte bete dituzu martxoan.**

Bai. Hasieran poliki hasi nintzen. Urnietan lanean aritu izanak ere jende asko ezagutzea dakar, eta haietako asko handik hona

etorri ziren, Onddi utzi nuenean. 2008ko krisi ekonomikoak gogor kolpatu gintuen, lana asko jaitsi zelako. Nire lehenasuna beti izan da langileak ez kaleratzea. Orduan ere bai, eta halako aldaketa batzuk egin genituen gure lan moldean: ostiral gaua eta larunbatetan lanean hastea erabaki genuen, karta erraz batekin. Gazte jendea erakartzeko asmoa genuen, langileek komeri nahiko bazutelako krisiari buelta emateko. Garagardoa euro bateko salneurrian jarri genuen ostiral eta larunbatetan, eta asmatu genuen. Hainbestera, horri esker libratu genuela krisia neurri handi batean, langilerik kaleratu gabe.

**Langileak dira zuen negozioko bizkarrezurra, ezta?**

Halaxe da. Goizeko 05:00etarako zabalik da taberna, gaueko bederatzia arte, eta ordu guzti horietan sukaldea martxan izaten dugu. Edozein ordutan etor daiteke bezeroa pintxoak edo ogitartekoa eskatzera, eta horrek, noski, bezero asko erakartzen du. Salneurriek dagokionez uste dut onak direla, eta ogitartekoak eta pintxoak handiak. Zerbitzua azkarra da, eta bezeroak hori behar du: ona, azkarra eta salneurri onekoa den produktua. Langileak dira, astegunetan etortzen direnak, eta azkar-azkar mokadu bat jateko tarte justua duen jendea, lehenbailehen lanera itzuli edo etxera joateko. Hori asko estimatzen du langileak. Eta gero jende jatorra garela, gertukoa. Langile zoragarriak ditut.

**Nongo jendea etortzen da?**

Inguruko herri askotatik. Tolosaldeatik, Urnietatik, Lasarte-Oriako Michelin enpresakoak... Pasoko jendea da. Langileez gain festa edo jai bereziren bat bada ogitarteko eskaera dezente izaten ditugu. Baita Realak jokatzan duen ere. Orduan lan taldea indartzen dugu.

**Zenbat zarete tabernan?**

Ni eta beste sei langile. Ireki nuenean hiru langilerekin hasi nintzen. Berriak sartu behar izan ditut baja batzuegatik edo langile zenbait haurdun geratu direlako.

**Nolakoa da zuen eguneroko martxa?**

Goizaldeko 03:15tan jaikitzen naiz, eta 04:30rako tabernan egoten naiz sukaldari batekin batera. Prestaketa lan batzuk egin eta 04:45rako taberna irekitzen dugu. 09:00ak arte aritzen



Goizeko bostetarako zabalik da Irrintzi taberna, gaueko bederatzia arte, eta ordu horietan guztietan sukaldia martxan izaten dute. AIURRI

gara lanean biok, eta bederatzietan beste bi langile eta sukaldari batek hartzen ditugue txanda. Bi ordu geroago beste langile bat hasten da, eta arratsaldeko txanda egiteko beste sukaldari bat daukagu. Gauean 21:00ak aldera ixten dugu, ostiralean izan ezik. Egun horretan plater konbinatuak eta eskaintzen ditugu, eta gaueko 23:00ak arte edukitzen dugu irekita. Eguneko menuak ere ematen ditugu: eguerdiko 12:00tan hasi eta arratsaldeko 15:30ak arte. Sukaldia egun guztia edukitzen dugu irekita, eta ogitarteko bat nahi duenak eguneko edozein ordutan eska dezake.

**Ostirala al da zuen egun indartsuena?**

Bai. Iluntzetan ere jende asko etortzen delako. Ostiraletan badakigu lan doblea izango dugula, eta egunik onena izaten da

guretzat. Larunbat goizean bi langile bakarrik egoten gara, ordu biak arte, eta ogitartekoak bakarrik prestatzen ditugu. Pandemia aurreko garaian larunbatetan ere menuak ematen genituen, baina ondoren kentzea erabaki nuen. Adinean ere gora noa eta zaindu egin behar.

**Zenbat pintxo, ogitarteko ematen dituzue eguneko, gutxi gorabehera?**

Buf, ez nuke jakingo... Menua akaso zenbaki bat esango nizuke, baina ogitartekoak..., ez dakit, 300 bat ogitarteko bai, gutxienez, eguneko. 20 urte daramatzagu lanean dagoeneko, eta egunero-

**"OSTIRALETAN BADA KIGU LAN DOBLEA IZANGO DUGULA, EGUNIK ONENA DA GURETZAT"**

egunero etortzen den jende asko dago. Atetik sartzen den bezeroari erreparatu eta badakigu, ia ziur, zer eskatuko duen.

**Jubilatzera omen zoaz.**

Beno, ez dut guztiz erabaki, baina nahi nuke, bai. Nola geratuko naizen aztertu beharra daukat. 62 urte ditut, eta lasaiago bizitzen hasi nahi nuke. Hemengo martxa nekagarria izaten da, ez du atsendenik hartzeko tarterik ematen.

**Zu gabe ere Irrintzi ez da itxiko.**

Ez ez, ezta gutxiago ere. Etxeko norbaitek jarraitzea nahi nuke, baina posible ez bada langileren baten esku utzi nahi nuke negozioa. Eta aginte-makila hartuko duen inor ez bada agertzen, ni neu geratuko naiz lanean. Irrintzi ez da itxiko, inola ere ez. Hainbat bezerori esan diet jubilatutako nahi nukeela, eta barrez erantzun didate ez dudala erraz utziko taberna.

**Bizitza osoa ostalaritzan egin duen pertsona kopurua gero eta txikiagoa da.**

Bai, hala da, baina nik gustuko lana izan dut, gogorra izanda ere. Tratu asko edukitzen duzu jendearekin, eta hori polita da. Ze beste lanetan arituko nintzatekeen galdetuko bazenit, ez nuke asmatuko zertan, 14 urte ditudanetik ari bainaiz ostalaritzan. Hau bakarrik ezagutu dut.

**Ba al da zure jardunetik gustatzen ez zaizun zerbait?**

Beno, beti daude berezi samarrak diren bezeroak, ogitartekoa modu jakin batean nahi dutenak. Ka-

**"GUSTUKO LANA DUT, GOGORRA IZANDA ERE. TRATU ASKO EDUKITZEN DUZU JENDEAREKIN"**

fea beti da kafea, makinak egiten duelako. Zaila da ezberdina izatea, baina ogitartekoak ba berezitasunen bat eduki dezake, eta hori, une batzuetan, nekeza egiten da. Taberna lepo dagoenean, adibidez.

**Tabernara sartu eta berehala jabetzen da pertsona lanean ze giro ona daukazuen.**

Niretzat lankideak nire etxeakoak bezalakoak dira, ez naiz sekula haserretzen beraiekin, eta hori nabaritu egiten da egunerokoan. Konfiantza dugu denok elkarrekin.

**Nagusi ona zarela diote langileek? Zer esango dute ba...**

**Zer aldatu da bi hamarkadatan sukaldian, barra atzean?**

Janari ohiturak. Lehen ogitarteko gutxiago saltzen ziren, eguneko menu gehiago. Egun menuak ez dauka hainbeste salmenta, garesti samarra baita plateretik jatea. Lehen bi plater, postrea, kafea... denetarik jaten zen. Egun gehiago da pintxo eta kafea, edo ogitartekoa eta kafea. Iraganen enpresa askok eguneko menua ordaintzen zieten langile askori, gaur egun dagoeneko ez.

**Eta zer egiteko asmoa duzu, bada, jubilatzen zarenean?**


Lasai bizi. Goizaldean jaiki beharrik ez, paseotxo bat eman Urnietatik, edo Kontxa aldera... Ez naiz urrutiti bidaiatu zalea, baina hemen ez naiz galduko. Lasai bazkaltzea ere gauza ona da, eta orain beti presaka ibiltzen naiz. Semeek errieta egiten didate, dena presaka egiten dudalako, ea ba hori aldatzen den.

**Zerbait esan nahi duzu, bukatu aurretik?**

Eskerrak eman etortzen den jende guztiari, haiek gabe ni eta irrintzi taberna ez lirakeelako ezer.

**TXOKOTIK ZABALERA**


UNAI GAZTELUMENDI ARANDIA MARRAZKILARIA



AIURRI

**Ez du ikusgarritasunik galtzen**


Aste Santuko astelehenean, arratsaldean hasita, ekaitza lehertu zen Andoain aldean. Zeruari begira jarrita, kontrastea agerikoa zen. Aduna aldera, argitsu, eta Urnieta aldera, berriz, ilun-ilun. Ekaitza lehertu zenean ortzadar ikusgarria agertu zen. Tarteka ikustera ohituta bagaude ere, fenomeno meteorologikoak ez du ikusgarritasunik galtzen.



AIURRI

**Kamioien gasolindegia**

Urnieta eta Andoain arteko mugan, Ergoien auzoan, hedadura handiko gasolindegia eraikitzeko lanekin aurrera darraite. Ez, ordea, iragarri zuten erritmoan. Izan ere, sei hilabete atzera, sasoi honetarako zabalik izango zela aurrikusi zuen Jaen probintziako Linares hirian egoitza duen MLC Energia enpresak. Lanak, ordea, ez dira amaitu.



AIURRI

**Bi urteren ostean itxi dute**

Andoaingo Zumea plazako negozio ezagunak bereak egin du. Egunotan lokala hustutzen ari dira, eta dagoeneko espazioa alokairuan dagoen afitxa eskegita dago. Oreka supermerkatuak 2022ko uztailean ireki zituen ateak, eta denbora tarte honetan egunero zabalik izan da goizeko 08:00tik gaueko 22:00ak arte.



AIURRI

**1974an jaiotako bazkaria**

Urnietan kinto bazkaria antolatu dute. Oianumen bazkaria egingo dute datorren ekainaren 8an, eta izena emateko maiatzaren 17ra bitarteko epea zabalik dago. 50 urte bete edo beteko dituztenek, beraz, garai bereko urnietarrekin ospatzeko aukera izango dute. Bazkariaren eta festaren ordainketa aurretik egin behar da. Informazioa: 626 777 401 (Javi).



'Bichta Éder', Eneko Bidegain. ELKAR

**Karmele Jaio eta Eneko Bidegain, 111 Akademia Sariko finalistak**

Elkar argitaletxeak argitara emandako bi liburuen artean hautatu beharko dute akademiakideek, datorren apirilaren 28ra bitarte. Gauzak ondo, apirilaren amaieran emango dute ezagutzera sariduna. Sari bana-keta ekitaldia, ohi bezala, Amasa-Villabonako HIKA txakolindegian izango da. Antolatzailea Larramendi Bazkuna da.



'Maitasun Kapitala', Karmele Jaio. ELKAR

# Santakruzak, aurten, apirilaren 30ean hasita

Apirilaren 30ean hasi eta maiatzaren 5era bitarte luzatuko dira aurtengo Santa Krutz jaiak. Urtero lez, askotariko ekitaldiez eta kontzertuez gozatzeko aukera edukiko dute andoaindarrek

## Erredakzioa ANDOAIN

Santakruz Jai Batzordea duela hilabete batzuk hasi zen pres-taketa-lanetan. Auzoko jaiak diren arren, herriko festa gisa sentitzen dute askok eta, beraz, lan handiko egunak izan ohi dira antolatzaileentzat. Apirila-ren 30an hasiko dira festak, asteartearekin, eta maiatzaren 5ean amaituko dira. Hamarnaka ekintzez osatutako jaiak izango dira, haur, gazte eta helduentzat. Andoaindarrek ez dute aspertzeko astirik izango.

Urtero lez, zenbait ekintza ziurtatuta daude, besteak beste, Zumeatarra, Irunberri eta Peña Santa Krutz elkarten danborradak, sagardo txapelketa, auzo bazkaria eta bakailao txapelketa, beste batzuen artean. Egitaraua argitaratzeko dagoen arren, badira aurretiaz aipagarriak diren ekitaldiak.

## Kuadrillen Eguna

Seguruaski, jaietan ikusmira handiena sortzen duena Kuadrilla Eguna izango da. Antolaketak esandakoaren arabera, maiatzaren 2an ospatuko da (osteguna). Iragarpen batzuk egin dituzte, urtero bezala, goizean, jokoak egitea aurreikusten da, txarangaren laguntzarekin. Eguerdian bazkaria, ohi bezala,



Santa Krutz jaiak iristear dira. AIURRI

musikak lagunduta. Sorpresa bat ere iragarri dute. Arratsaldean, kuadrillen arteko kalejira eta, gauean, Kaparrak taldearen kontzertua eta DJ Naza.

## Hamaika ekitaldi

Urtero bezala, ez dira faltako bakailao jatea, auzo bazkaria, txaranga, kontzertuak eta sagardo txapelketa, beste askoren artean. Jai Batzordeak adierazitakoaren arabera, egitarau oparoa osatu dute, adin tarte guztientzako. Ez dute aspertzeko denborarik izango.

## Inklusibitatea ardatz

Jai Batzordeak suziriaren erabilera nabarmen murriztuko du. Ez hori bakarrik, egitarauan zehaztuta egongo dira zein egunetan, orduetan eta ekitalditan botako diren. Gainera, soinuak eta argiak gabeko bi egun egingo dira barraketan; bereziki, soinuak eta argiak ezinezona, deserosotasuna edota mina eragiten direnei zuzendua. Apirilaren 28an eta maiatzaren 3an eskainiko da aukera hori, arratsaldeko 17:00etatik 19:00ak bitarte.



Txartelen ordez pultserak erabiliko dituzte, iaz bezala. AIURRI

## Kuadrillen Egunerako pultsera

Aurten parte hartu nahi duenak pultsera eskuratu beharko du. Asteartean jarri zuten postua eta herrikide ugari hurbildu zen eskumuturrekoa eskuratzera. Bigarren aukera dago, larunbatean.

### Apirilak 13, larunbata. Juanita Alkain plaza

12:00tan hasi eta 13:30ak arte Juanita Alkain plazan eskuratzeko aukera izango da, 8 euroko prezioan. Antolaketak adierazi duenez, epez kanpo eskuratzen duenak 10 euro ordaindu beharko du.

### Maiatzak 2, osteguna.

#### Bekoplaza

Antolaketak egitarauaren berri eman du.

#### 11:30 Jokoak Bekoplazan:

Tragabolas, zaku lasterketa, trizibeherak, aulki jokua, erreleboak.

#### 14:00 Bazkaria Bekoplazan:

Bazkaria nork berea eraman behar du. Mahaian eseritzeko pultsera edukitzea beharrezkoa da:

"eskumuturrekorik ez duenak ez du sarbidea izango".

15:00 Sorpresa iragarri dute. Eta, ondoren, DJ Ibiltariaren saioa hasiko da. Bazkarirako mahaia eta aulkiak jaso beharko ditu kuadrilla bakoitzak.

22:00-23:30 Kontzertua: Kaparrak taldea.

00:00-04:00 DJ Naza.



Artiboko irudia. AIURRI



Kontzultatu gure programa hemen:  
[mirengorrotxategi.eus](http://mirengorrotxategi.eus)

# MIREN GORROTXATEGI

Talarrak Podemosen lehendakari gisa



## AUKERATU

## EZKERRA

## BOZKATU

elkarrekin  
Podemos





Errepidea berria eraikiko duten lur eremu berria. UDALA

## Babiloniako bidea eraikitze lanak azkartuko dituzte

Abian da Lasarte-Oriarantz joko duen bide berria. 1.317.005 euroko gastua aurreratuko ditu Udalak

### Erredakzioa URNIETA

Urnietako Udalak martxan jarri du Babiloniako bide berriaren proiektua, "udalerriko konektibitatea hobetzeko eta trafikoa arintzeko". Joan den martxoaren 21ean egindako Osoko Bilkuran hartu zen erabakia, Gobernu Taldearen aldeko bozkekin eta EH Bilduren abstentzioarekin. Hala, bidearen proiektua lehen fasean sartu da, Udalaren 1.317.005 euroko aurrekontuarekin: "Bidearen hasierako finantzaketa Udalak aurreratuko du", adierazi du Urnietako Udalak, zabalduak prentsa-oharrean, "eraikuntza berehalakoa izan dadin, eta, ondoren, Babiloniako hirigintza-garapeneren etorkizuneko sustatzaileek itzul dezaten".

Proiektuaren gaineko erabaki horren aurrean, aldeko bozka eman zuen oposizioan dagoen EH Bilduk, nahiz eta ez dagoen

ados Gobernu Taldeak prozedura gauzatzeko hartu duen jarreararekin. Aiurri hedabideari adierazi bezala, "aurreikuspen zein borondate falta" egon dela uste du EH Bilduk: "Ondoren, gure babesa izan duten auzotarren protestekin mugitu egin behar izan dira".

### Lehen zereginak

Bide berria 300 metro ingurukoa izango da, GI-3722 errepideko 4,700 kilometro-puntuan dagoen elkargunetik GI-3832 errepideko etorkizuneko biribilguneraino, eta, guztira, zazpi metroko zabalera izango duen bi erreiko galtzada izango du. Proiektuaren lehen fasean honako lan hauek egingo dira: lurrak mugitzea, zoladura jartzea, egungo bideekin behin-behineko konexioak egitea, euste-lanak egitea, eta euri-urak drainatzeko eta saiatzeko sistemak instalatzea.



Andoaingo Osasun-etxea. AIURRI

## Anbulatorioko ordua murriztu dute Andoainean

Urnietan, aldiz, berrezarri egin dute pediatria zerbitzua hainbat egunez etenda egon ostean

### Erredakzioa ANDOAIN/URNIETA

Andoaingo Osasun Etxearen ordutegia hiru orduz murriztu dute, martxoaren 18an hasita. 20:00ak arte zabalik zen lehen, eta aurrerantzean 17:00ak arte bakarrik. Osasun Etxearen atarian ageri da afitxa argigarria da: Kristalari itsatsita zegoen ordutegiaren gainean eskuz jarri dute ordutegi berria.

Rikardo Arregi Kaleko ambulaterioan, udan, arratsaldeko 17:00ak arte zabalik izan ohi da. Bada, dagoeneko, ez ohikoa dena eguneroko bilakatu dute eta, aurrerantzean, Andoaingo Osasun Etxearen ordutegia 08:00-17:00 artekoa izango da.

### Pediatria zerbitzua, berriro martxan, Urnietan

Berrezarri da, jada, Urnietako ambulatorioko aurrez aurreko pediatria-zerbitzua. Martxoaren hasieratik, oraindano, Hernanira jo behar izan dute herritarrek. Aldaketak alarma piztu zuen herritarren aurrean, eta aldaketa puntuala izan dela dirudi. Zerbitzua asteleheneetik ostiralera dago eskuragarri, goizeko 08:00etatik 15:00etara. Hitzordua hartzeko bi bide daude: 943 00 66 80 telefono zenbakira deituta, edo Osakidetza webgunean eskaera egitea.



Ondare aberatsa du Urnietak. UDALA

## Urnietako ondarea zaintzeko lanak egin ditu Udalak

Kontserbazio-lanak Euskal Kultura Ondarearen Legeak udalei emandako eskumenei esker egin dira

### Erredakzioa URNIETA


Altzibarko eta Tximistako hozkailuetan, Montefrioko eta Berrasoetako karobietan eta Urnietako ondare megalitikoko hainbat elementuetan konponketa lanak egin dituzte. Urnietako Udalak ohar bidez zabalduak informazioaren arabera, arkeologian eta kontserbazioan aditua den talde batek gidatu ditu lanak. Xabier Alberdi, Iosu Etxezarraga eta Luis Del Barrioren zuzendaritzapean egin dira lan guztiak.

Ondare aberatsa du Urnietak. Ondare megalitikoak, Udalak adierazi bezala, "Onyi-Mandogiko Estazio Megalitikoaren Monumentu Multzoaren parte da, 5.500 urte baino gehiagoz gizakiak eskualdean izan duen presentziaren lekuko bat da".

Altzibar eta Tximistako hozkailuak, Montefrio eta Berrasoetako karobietan batera, aldiz,

"Urnietako historiaren eta garapen industrialaren funtsezko testigantzak dira".

Kontserbazio-lanak bat datoz Euskal Kultura Ondarearen Legeak udalei emandako eskumenekin.



Konpontze-lanak egin ditu Udalak. AIURRI



Urnietako  
udala



Asteleneko ekitaldi nagusia Andoainen ospatu zuen, EH Bilduk. Otxandiano, Rodriguez eta Iriarte bertaratu ziren. EHBILDU



Denis Itxaso Gipuzkoako hautagaia, Andoingo merkatu plazan. AIURRI

# Hautagaien desfilea

Eusko Legebiltzarreko hautagaiak Andoainen eta Urnietan izan dira, egunotan. Otxandiano EH Bilduko Lehendakariak eguneko mitin nagusia eskaini zuen Andoainen. Tejeria jeltzalea eta Itxaso sozialista ere astearen hasieran hurbildu ziren

**Jon Ander Ubeda** ANDOAIN/URNIETA  
Euskadin indar handiena eta azpiegitura osatuena duten hiru alderdi nagusiak ekimen betean dira, jokoan dagoena ez baita gutxi: Eusko Legebiltzarreko ordezkariak berritzea. EH Bilduk indartsu ikusten du bere burua, inkestek eta kalean antzematen duenak hauspotuta. EAJ-PNVk Eusko Jaurlaritzaren lidergotza

beregain hartu izan du, eta ildo beretik jarraitzeko apustua egin nahi du. PSE-EEk bere aldetik jakin badaki bere ordezkartzak balio kualitatibo esanguratsua duela eta, horretarako, emaitza txukuna lortu behar dute.

Abiapuntua hori izanik, aste honetan, eskualdean, hautagaien desfilea izan da. Datozen urteotan euskal politikagintzaren

aktore nagusi asko hurbildu dira bi herriotara. EH Bilduk kanpainako ekitaldi nagusia antolatu zuen Andoainen, Pello Otxandianorekin. Haren alboan izan zen Arkaitz Rodriguez. Biak ala biak legebiltzarkide izango dira, apirilaren 22tik aurrera. Alderdi eta herri gisa anbizioz jokatzeko deia luzatu zuten, uena orain dela azpimarratuta.



EH Bilduk ekitaldia antolatu zuen Urnietan, astearte arratsaldean. AIURRI



Gipuzkoako EAJ-PNVko hautagaiak Urnietan elkartu ziren, astelohen arratsaldean. AIURRI

"Aldaketarako agenda martxan jarri behar da", adierazi zuen Otxandianok berrehundik gora lagunaren aurrean. Ezkerreko independentismoa bere historiako emaitzarik onenaren atean dagoela iragarri zuen, segidan: "Ziur gaude gertatuko dela. Datozen egunetan jokoan dagoena ahalik eta emaitza onena izatea da, hain zuzen ere, inertiak hautsi eta herri hau martxan jartzea posible izan dadin".

Jeltzaleen aldetik, Bakartxo Tejeria eta Markel Olano Gipuzkoako zerrendaburuak Urnietan izan ziren. Datozen lau urteetan administrazioen ateko koordinazio egokia beharrezkoa izango dela sinetsita, Urnietako Udalaren egitasmoak bertatik bertara ezagutzeko hitzordua izan zuten Jorge Segurado alkatearekin eta haren lantaldearekin. Tejeriak adierazpenak egin zituen ekitaldiari amaiera eman aurretik: "Gaur alkateak eta zinegotzi taldeak abian dituzten egitasmoak aurkeztu dizkigute.

Eta guk ere gure programaren atal batzuk aurkeztu ditugu. Gai ugari aztertu ditugu: lehen sektoreak garrantzi handia du herrian eta horrela jarraitzea nahi dute. Industriari garrantzia ematen diogu, horrek, ondorioz, zerbitzu publiko sendoak ekarriko dituelako. Hezkuntzan, Urnietan Eusko Jaurlaritzaren lizitazioaren zain dira DBHko eraikina martxan jartzeko. Zaintzak garrantzia hartuko du etorkizunean, eta, aurrera begira, hitzartuta dago adinekoentzat erresidentzia berria".

Astearte goizean, Denis Itxaso hautagai sozialista Andoainen izan zen, kanpainan ohitura duten larrosa banaketa eginez. "Kanpainan Osakidetza gai potoloa da. Pandemia ostean, zerbitzuak okerrerruntz egin du. PSE-EEk hainbat proposamen egin ditu, lan-taldea handitzeko". Arratsaldean, EH Bilduk ekitaldia antolatu zuen Urnietako kiroldegiko boxan. Susana Sanz hautagaia hizlari aritu zen.

www.aiurri.eus

**AIURRI**  
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



• #A21Hauteskundeak  
• Kanpainaren jarraipena

# Hautagaitza ugari

EAJ-PNV, EH Bildu, PSE-EE, PP eta Elkarrekin Podemos dira udaletxe, batzar nagusietan eta Legebiltzarrean ordezkariak duten alderdiak. VOXek badu ordezkari bat Gasteizen eta, horiez gain, alderdi gehiago aurkeztu dira hauteskundeetara



Apirilaren 21ean Eusko Legebiltzarrerako ordezkariak hautatu beharko dira. AIURRI

## Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Andoainen eta Urnietan oinarri eta egitura sendoena duten alderdiak EH Bildu, EAJ-PNV eta PSE-EE dira. Eta, okerrik ezean, hiru alderdi horiek izango dira bi udalerrietan babes zabalena jasoko duten hautagaitzak. Iku-si behar zein hurrenkeran izaten den. Aurrekaritzat azken deialdia hartuta, 2020ko uztailean egin ziren Eusko Legebiltzarrera berritzeko azken hauteskundeak. Orduko hartan EH Bildu izan zen bozkatuena. Urnietan, aldiz, EAJ-PNV izan zen garailea:

ANDOAIN   2020, UZTAILA	
1	EH Bildu <b>2.056</b>
2	EAJ-PNV <b>1.541</b>
3	PSE-EE <b>913</b>

URNIETA   2020, UZTAILA	
1	EAJ-PNV <b>859</b>
2	EH BILDU <b>750</b>
3	PSE-EE <b>283</b>

Lau urte geroago, ikusteke dago udalerrri bakoitzeko joera zenbateraino aldatzen den. Andoainen EH Bildu lehen indar modura egonkortzen ari da. Urnietan, historikoki, EAJ-PNV izan da nagusi.



Lainez (PSE-EE). AIURRI

## Podemos-Sumar auzia

Estatu mailako ezkertiar mugimendua bitan zatituta ageri da, eta ikusteke dago horrek zein ondorio utziko duen bi udalerrietan. Elkarrekin Podemosek egitura egonkorra du Andoainen, eta 2020ko hauteskunde haietan 438 boto lortu zuten. Sumarren agerpenak zenbateko galera eragingo dion aurrikustea zaila da. Zatiketa onorioak apirilaren 21era arte ez dira jakingo.

## Hainbat erakundetan ordezkariak duten alderdi politikoak

ALDERDI NAGUSIAK EUSKAL HERRIKO AGINTARITZAREN ALDIZKARIAN ARGITARATUTAKO HURRENKERAN

### EH BILDU

01. Nerea Kortajarena Ibañez
02. Arkaitz Rodriguez Torres
03. Itziar Murua Uria
04. Ander Goikoetxea Arana
05. Lore Martinez Axpe
06. Josu Aztiria Urtaran
07. Rebeka Ubera Aranzeta
08. Ayem Oskoz Urrutikoetxea
09. Garikoitz Mujika Iriondo
10. Erantz Saez De Egilaz Ramos
11. Xabier Luque Astigarraga
12. Susana Sanz Huete
13. Gilen Garcia Boyra
14. Garazi Lopez De Etxezarreta
15. Jokin Bergara Eguren
16. Laida Begiristain Apaolatza
17. Zorion Ortigosa Arruti
18. Arritxu Iribar Egaña
19. Tasio Arrizabalaga Azpiroz
20. Anuska Esnal Oliden
21. Mikel Osinalde Melchor
22. Olaia Matxain Galfarsoro
23. Manuel Diaz De Rabago Villar
24. Maddalen Iriarte Okiñena
25. Arnaldo Otegi Mondragon

### EAJ-PNV

01. Bakartxo Tejeria Otermin
02. Markel Olano Arrese
03. Maria Eugenia Arrizabalaga
04. Olatz Peon Ormazabal
05. Markel Aranburu Bartau
06. Xabier Barandiaran Irastorza
07. Elena Lete Garcia
08. Aitor Urrutia Oianguren
09. Garikoitz Mendizabal Etxeberria
10. Marijo Etxegoien Arzuaga
11. Ane Gil Izagirre
12. Jon Ander Azpiroz Otegi
13. Arantzazu Rojo Gomez
14. Aitor Iriondo Unamunzaga
15. Eva Juez Garmendia
16. Miren Letamendia Belloso
17. Xabier Eizagirre Aizpurua
18. Iosu Mugika Garmendia
19. Elixabete Murua Mindegia
20. Aitor Uriondo Usandizaga
21. Loreto Osa Ocon
22. Agurne Juldain Alcalde
23. Iosu Ezkurdia Santamaria
24. Xabier Otxoa Muñoz
25. Ivan Iriondo Axpe

### PSE-EE

01. Denis Itxaso Gonzalez
02. Susana Corcuera Leunda
03. Miren Gallastegui Oyarzabal
04. Miguel Angel Paez Escamendi
05. Susana Garcia Chueca
06. Ricardo Crespo Rubio
07. Itxaso Asensio Curiel
08. Sergio Javier Alzaga
09. Maider Lainez Lazcoz
10. Alex Gonzalez Duque
11. Sandra Castelo Franco
12. Inaxio Illaramendi Lizarreta
13. Almudena De La Torre
14. Oscar Valbuena Pascual
15. Nuria Fernandez Castrillo
16. Jose Angel Rodriguez Medina
17. Lore Suarez Linazasoro
18. Jose Antonio Sanchez Almaraz
19. Idoya Sarasqueta Aramburu
20. Jaime Diez Estevez
21. Janire Igoa Merino
22. Jose Angel Sanchez Gallardo
23. Eva Alvarez Atanes
24. Aritz Murua Acha
25. Iñaki Arriola Lopez

### Partido Popular

01. Muriel Larrea Laso
02. Joana Arce Gorostidi
03. Adrian Ortuñe Zapardiez
04. Javier Cristobal De Sande
05. Maria Manrique Mendia
06. Jon Echeverria Franco
07. Jose Luis Herrador Gutierrez
08. Antonio Vicente Zubicoa
09. Vanesa Velez De Pablos
10. Maria Botejara Sampedro
11. Maria Garrapiz Rivas
12. Jorge Mota Iglesias
13. Jose Javier Barcaiztegui
14. Carmen Blasco Zuasti
15. Guillermo Sanchez-Berra
16. Amparo De Orbe Pinies
17. Manuel Palacio De Ugarte
18. Maria Pilar Segura Sanz
19. Borja Corominas Fisas
20. Miriam Lago Irigoyen
21. Mikell Lezama Zubeldia
22. Mila Urizar Aranzeta
23. Carlota Sanz Martinez
24. Jose Luis Arrue Pinto
25. Maria Pilar Elias Zabala

### Elkarrekin Podemos

01. David Soto Rodríguez
02. Miren Echeveste Lacombe
03. Ander Jiménez Cava
04. Maite Gartzia Ontiveros
05. Thania Pazos Gonzalo
06. Yolanda Martín Marcos
07. Victor Jose Las Briz
08. María Valiente Gonzalez
09. Enrique Miguel Martinez
10. María Eugenia Lopez Muñoz
11. Evaristo Rodriguez Rabano
12. Beatriz Garcia-Rodrigo
13. Karen Ortiz De Guinea García
14. Jose Maria Iparraguirre Balda
15. María Angeles Garcia Calle
16. Txitxo Diaz Escano
17. Maria Rodriguez Barreña
18. Wesley Aritz Corsitto Aguirre
19. Silvia Alarcón Garcia
20. M.Carmen Arruabarrena Perez
21. Marcelina Martin Barroso
22. Gregorio Barcina Prados
23. Isabel Fernandez Pejenaute
24. María Luisa Garcia Calle
25. F.Javier Busselo Ortega





Iparragirre (Elkarrekin Podemos). AIURRI



Garrapiz (PP). AIURRI



Lizarralde (Aulki Zuriak). AIURRI

Urnietan, Podemosek 164 boto jaso zituen. Egoera bera da, Urnietan.

#### Babes apala duten alderdiak

2020an hamalau hautagaitza aurkeztu ziren eta, lau urte beranduago, hamaika izango dira. Horien guztien artean VOX da babes gehiena lortu zuena. Andoainen 54 boto jaso zituzten, eta Urnietan 20. Lau urte geroago eskuin muturrak zenbaterai-

noko babesba duen jakitea izango da apirilaren 21eko arreta guneetakoa. Animalien defentsan oinarritzen den PACMA-k Andoainen 21 boto jaso zituen, eta Urnietan 16. Por Un Mundo Mas Justo (PUM+J) hautagaitzak, aldiz, Andoainen boto bakarra jaso zuen, eta Urnietan 4. Bestalde, eserlekua hutsik uztea aldarrikatzen duen Aulki Zuriak hautagaitzak 17 boto jaso zituen Andoainen, eta 8 Urnietan.

Bada hautagaitza berri bat, Izan izenekoa. Haien informazioz nekez topa daiteke internet sarean. Gipuzkoako zerrendaburua Teresa Lopez de Munain euskal aktorea da. "Goenkale" telesailan egin zen ezaguna.

#### Hautagaiak hainbat zerrendetan

Andoaingo bi zinegotzi hautagaien artean dira. Gipuzkoako sozialisten zerrendan 9. postuan ageri da Maider Lainez Andoain-

## Pagazaurtundua, PPrende alde

"Hautes-ontzietan aurki daitekeen aukera duinena delako", Maite Pagazaurtundua PPrende aldeko botoa eskatu du. Ciudadanos alderdia ordezkatzu, eurodiputatu lanetan ari da oraindik orain. Eta, lehenago, UPyD eta PSE-EE alderdietan aritu zen. Urrutira joan gabe, 1999 eta 2007 urteen artean Urnietako zinegotzi izan zen PSE-EE alderdia ordezkatzu.

Egun, esan bezala, Bruselan diputatu da. Laster utziko dio karguari, ekainean berrituko baita Europako parlamentua.



Pagazaurtundua. AIURRI

go alkate-ohia. "Egun, Jose Ignacio Asensio diputatuaren kabineteko buru da", horrela aurkeztu zuen alderdiak hauteszerrenda iragarri zuen egunean. Pepe Iparragirre Elkarrekin Podemoseko zinegotzia Gipuzkoako zerrendan ageri da, 14. postuan.

Badira aipatzea merezi duten beste bi hautagai. PP alderdian Maria Garrapiz 11. postuan aurkeztu da. Andoaingo Udal hau-

teskundeetan bera izan zen popularren alkategaia.

Aulki Zuriak izeneko hauteszerrendan, berriz, Gipuzkoako zerrendaburua Daniel Lizarralde da. 2015ean osatu zuen hautagaitza, Urnietan zerrenda aurkeztu ahal izateko. 2019an alkategaia izan zen, Urnietan bertan. 2023ko bozetan Iruñeko udaleko alkategaia izan zen. Oraingoan, berriz, Gipuzkoako zerrendaburu gisa aurkeztu da.

# Hautes-zerrenda berriak eta babes apalagoa duten alderdiak

ESKAITZA ZABALA EUSKAL HERRIKO AGINTARITZAREN ALDIZKARIAN ARGITARATUTAKO HURRENKERAN

- |   |  |  |   |  |
|---|--|--|---|--|
| <p><b>Pum+J</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>01. Iratxe Hernandez Simon</li> <li>02. Jesus Barcina Burgui</li> <li>03. Maria Rosario Alonso Amigot</li> <li>04. Jose Manuel Corcuera Miranda</li> <li>05. Henar Fatima Gutierrez Mayo</li> <li>06. Agustín Martínez Barbara</li> <li>07. Mireia Alaña Heredero</li> <li>08. José Luis Etxeberria Sánchez</li> <li>09. Nidia González Olaya</li> <li>10. Galder Abos Mendizábal</li> <li>11. María Irache Bustinza Vivanco</li> <li>12. Carlos Colino Llamas</li> <li>13. María Jesus Garrido Lopez</li> <li>14. Roberto Carlos Coronado</li> <li>15. Zaida Dueñas Rodríguez</li> <li>16. Miguel Hidalgo Trueba</li> <li>17. Leire Calle De La Torre</li> <li>18. J. Antonio Alarcon Fernández</li> <li>19. Patricia Sáenz Novales</li> <li>20. Enrique García Sancho</li> </ol> <p><b>Aulki Zuriak</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>01. Daniel Lizarralde Aguirre</li> <li>02. Amaia Larrea Loran</li> <li>03. Diego Cea Maudo</li> </ol> | <ol style="list-style-type: none"> <li>04. María Yolana Fernandez Calero</li> <li>05. Luis Garcia Molina</li> <li>06. Sara Roteta Uresberueta</li> <li>07. Andoni Garcia Lopez</li> <li>08. Gloria De La Parra Amorena</li> <li>09. Jairo Del Olmo Jiménez</li> <li>10. Adriana Martínez De Lizarduy</li> <li>11. Aitor Picabea Lamuedra</li> <li>12. Elvira Candelaria Garcia Vidales</li> <li>13. Jokin Biain Araquistain</li> <li>14. Samanta Garcia Lopez</li> <li>15. Andoni Picabea Lamuedra</li> <li>16. Rosa María Garcia Molina</li> <li>17. Pedro Igarzabal Arratibel</li> <li>18. Maria Asuncion Lopez Miguel</li> <li>19. Vilmar Fernandez Herrero</li> </ol> <p><b>Vox</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>01. Andres Paramio Junquera</li> <li>02. M. Mar Martija Sanchez</li> <li>03. Iñigo Arocena Fernández</li> <li>04. Alejandra Moreno Miguel</li> <li>05. Eduardo Rubio Gaston</li> <li>06. Saioa Retenaga Moreno</li> <li>07. Sebastián Santamarina Roderio</li> <li>08. Marta Segovia Gil</li> </ol> | <ol style="list-style-type: none"> <li>09. Alvaro Palacios Achaerandio</li> <li>10. Ana Isabel Caro Roque</li> <li>11. Emilio Joaquín Valcarcel</li> <li>12. M. Asunción Lacombe Mange</li> <li>13. Antonio Lourido Gonzalez</li> <li>14. Ionela Negrescu Caraman</li> <li>15. Bruno Rodriguez Galarraga</li> <li>16. María Isabel Luna Paz</li> <li>17. Gorka Tejada Goikocheta</li> <li>18. Maria De Hurdes De Las Peñas</li> <li>19. Adrián Manuel Pérez Calvo</li> <li>20. Nekane Garmendia Mendizabal</li> </ol> <p><b>Pacma</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>01. Asier Esparza Billalabeitia</li> <li>02. Jose Antonio Arrieta Egurrola</li> <li>03. Maider Cenitagoya Alcelay</li> <li>04. Natalia Figueroa Savidán</li> <li>05. Ainhoa Diez Hernández</li> <li>06. Sergio Adolfo Rodriguez Vitta</li> <li>07. María Pilar Cervera Pascual</li> <li>08. Sara García Perez</li> <li>09. Maria Pilar Romera Diez</li> <li>10. Marcos Santiago Eguren</li> <li>11. Daniel Jimenez Cervera</li> <li>12. Nahia Esparza Alejos</li> </ol> | <ol style="list-style-type: none"> <li>13. Alberto Carracelas Rodas</li> <li>14. Maria Monica García Ceberio</li> <li>15. Isabel Méndez Duran</li> <li>16. M. Pilar Julia Otegui Serrano</li> <li>17. Alfonso Perez Hernández</li> <li>18. J. Imanol Jimenez Cervera</li> <li>19. May Martinez Gamero</li> <li>20. Ainhoa Varona Agut</li> </ol> <p><b>Izan</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>01. M. Teresa Lopez De Muniain</li> <li>02. Juan Antonio Vadiello Querejeta</li> <li>03. Pilar Marrodan Orive</li> <li>04. Miren Josune Suquia Muñoz</li> <li>05. Manuel Regueiro Mendez</li> <li>06. Cristobal Arribillaga Askasibar</li> <li>07. Maria Luz De Prado Cañuete</li> <li>08. Guillermina Garcia-Vaquero</li> <li>09. Sara Gomez Santas</li> <li>10. Arkaitz Irastorza Embil</li> <li>11. Francisco Javier Garcia Alvarez</li> <li>12. Fran Urkidi Muguruza</li> <li>13. Oscar Martinez Rodriguez</li> <li>14. David Errasti Urrutia</li> <li>15. Juan Jose Mahave Capellan</li> <li>16. Jaione Iglesia Lasa</li> </ol> | <ol style="list-style-type: none"> <li>17. Mercedes Zuzuarregui Rodrigo</li> <li>18. Jaione Zubeldia Tellechea</li> <li>19. M. Eugenia Solores Clemente</li> <li>20. Diana Santos Blanco</li> </ol> <p><b>Sumar</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>01. Andeka Larrea Larrondo</li> <li>02. Lorena Vicioso Adria</li> <li>03. Juan Luis Iturria Gallego</li> <li>04. Patricia Rodiño Pijuan</li> <li>05. Monica Monteagudo Casas</li> <li>06. Juan Luis Merino Sanabria</li> <li>07. Garbiñe Santa Coloma Ibañez</li> <li>08. Santiago Jimenez Ussia</li> <li>09. Alejandro Del Pozo Mate</li> <li>10. Alberto Bezunartea Fernandez</li> <li>11. Ana San Roman Abete</li> <li>12. Arantza Gonzalez Garcia</li> <li>13. Jorge Hinojal Sotomayor</li> <li>14. Blanca Merchan Roperio</li> <li>15. Cira Carbajo Mardones</li> <li>16. Oroitz Aguirre Imaz</li> <li>17. Jose Manuel Ferradas Freijo</li> <li>18. Ibon Lopez Martin</li> <li>19. Monica Mora Reluz</li> <li>20. Ines Maria Benitez Lozano</li> </ol> |
|---|--|--|---|--|



Euskaldunako alebinak, txapeldunaren kopa eskuetan. AIURRI

# Emozioa, Cartujan eta Ubitarten

Ez dago kopa edo talde bakarra munduan. Apirilaren 6an asko eta asko Sevillara begira bazeuden ere, emozio ugari bizi izan ziren Andoingo Ubitarte futbol zelaian. Joxean Huizi memoriala gaztetxo askoren gogoan iltzatuta geratu da

## Erredakzioa ANDOAIN

SD Euskaldunak antolatuta, eta guraso eta boluntario askoren inplikazioarekin, Andoingo eta Gipuzkoako gaztetxo ugarik egun osoko ospakizuna bizi izan zuten aurreko larunbatean. Goizean, ligaxkako hiru partida jokatu ziren eta, arratsaldean, buruz burukoak. Azkenerako, bi finalak penaltietan erabaki ziren. Nesken txapelketan, teknikoki maila onena erakutsi zuten bi taldeak sailkatu ziren. Hots, Martutene eta Real Sociedad. Oso parekatua izan zen azken partida eta, azkenean, penaltietan Martutene gailendu zen.

Mutiletan, aldiz, penalti ugari bota zituzten Euskaldunako eta Touringeko kideek. Azkenerako, lehen saria etxean geratu zen Euskaldunako gaztetxoaren gozamenarako.



Nesken mailan Reala nagusitu zen, penaltietan Martutene garaituta. AIURRI

www.aiurri.eus



Huizi memoriala:

- Argazki-bilduma
- Bideoak

## Egun osoko jardunaldia



Joxean Huiziren etxeokak, Euskaldunako lehendakariarekin. AIURRI



Euskalduna A taldea. AIURRI



Euskalduna B taldea. AIURRI



Urnieta KE taldea, Ubitarten. AIURRI



Maria Rengel, Ainara De Miguel eta Ainara Leibar taldeko kideak. Txirrindandoain taldearekin harremanetarako: Instagram: @txirrindandoain. Telefono-zenbakia: 649 311 097. AIURRI

# Txirrindandoain kirol kluba

Kluba ofizialki oraintsu erregistratu dute, eta bere logo identifikagarria eta elastikoak ere kaleratu dituzte. Emakumeen artean kirola zabal dadin lagundu nahiko lukete, eta gogotsu daude ardura horri serio heltzeko

## Xabier Lasa ANDOAIN

Andoainek badu kirol klub berri bat. Txirrindandoain Kirol Kluba da bere izena, eta emakumeen artean kirolaren praktika sustatzea du helburu. Klubaren bultzatzailetako hiru kideekin, Maria Rengel, Ainara de Miguel eta Ainara Leibarrekin bildu da Aiurri astekaria.

Edonorentzat zabaldua dagoe la adierazi dute bultzatzaileek. Ilusioa gainezka dutela mintzatu dira; Kluba ofizialki oraintsu erregistratu dute, eta bere logo identifikagarria eta elastikoak ere kaleratu dituzte. Emakumeen artean kirola zabal dadin lagundu nahiko lukete, eta gogotsu daude ardura horri serio heltzeko.

Klubak hasieratik daukan planteamendu irekia azpimarratu dute, lehenbiziko eta behin. "Nornahi emakumek kirola egin

dezan erraztasunak jarri nahi genituzke, hori da printzipioa, eta hortik aurrera, konpromisoa

hartzen dugu ahal dugun neurrian laguntza eskaintzeko. Berdin dio zerotik hasi behar

bada ere. Klubera hurbiltzen den emakume horren baldintzetara egokitzen saiatuko gara, aurrera egin dezan", adierazi du Maria Rengelek. Beti ere, emakumeak kirola taldean lan-tzea dute asmoa.

Txirrindandoain kluba oraindik orain jarri dute abian, baina aurrez, zenbait emakumek sortua zuten izenik gabeko taldea, eta hala ekin zioten elkarrekin kirola egiteari, Leibarrek zehaztu duenez. "2022ko irailean taldetxo osatu genuen eta adostu genuen ahal genuen eta nahi genuen guztietan geratzea; whatsapp taldea sortu genuen elkar komunikatu eta hitzorduak jartzeko. Hamabost bat lagun gara oraingoz; mendi txangoren bat, Sansilbestrea lasterka... egin izan ditugu, eta batez ere, bizikletan egin izan ditugu irteerak, era guztietakoak. Batek zabaltzen du zer noiz egiteko asmoa duen, ea baten bat animatzen den luzatzen du gonbitea, eta erantzunaren zain geratzen da. Halako erraztasunez sortzen dira hitzorduak".

## Kirola, kolektiboan

Emakumeei begira sortu dute kluba. Eta badu azalpena, erabaki horrek. "Eskarmentuak agintzen digu horrela jokatzera", zehaztu du Rengelek. "Gutako batzuk, batez ere bizikletan ibiltzen gara gizonekin, eta ohar-tuta gaude, espreski kirolaren praktikarekin lotzen diren baldintza fisikoez gain (gizonak bizkorrago, distantzia luzeagoetan... ibiltzera ohituta daude), badirela beste zenbait ezaugarri nortasunarekin zerikusia dute-

nak, eta diferentzia markatzen dutenak. Eta argi daukagu dena errazten dela emakumeei emakumeekin kirola egiten dutenean. Hor giro berezia sortzen da, laguntasuna, ulertzeko gaitasuna, konplizitatea...". Leibarrek gehitu duenez, "terapia gisa ere ederki asko etortzen da, geure solasaldiak egiteko, konfiantza baitago geure kontu pertsonalak eta elkar komentatzeko...".

## Bizikletan ibiltzeko ikastaroa

Andoingo emakumeei bideratutako Jabekuntza Eskolaren baitan, bizikletan ibiltzeko bi ikastaro egin izan dira azken urtetan. Ondarreta ikastetxean, urrian 2023an egin zuten azkenekoa, eta Leibar izan zen bere gidaria. "Emakume mordoxkak eman zuten izena, eta espero ez zen arren, ohartu ginen badela eskaria alde horretatik. Izan ere, 50 edo 60 urtetik gorako zenbait emakumeei, bizitzako zirkuntziantziengatik, zailtasunak eduki izan dituzte bizikletan ibiltzeko, eta orain animatu egin dira".

Hain zuzen ere, elkarrizketa eskaini duten Maria Rengel, Ainara De Miguel eta Ainara Leibarrek ideia bat zabaldu nahi dute, beste ezereen gainetik: Txirrindandoain klubean irekitasuna dela nagusi, eta kirola taldean egin nahi duen emakume orok duela kabida bertan, baita bizikletan ibiltzeko ikastaroan parte hartzen dutenek ere, "bakoitzaren behar eta nahietara moldatzen ahalegindu gaitzke. Talde honetan mutur batekoek eta beste batekoek daukate tokia: triatloilaria dena, eta, oraintxe bizikletan ibiltzen hasi dena".

Errepidez inguratutako herria da Andoain, eta dezentekoa da auto-trafikoa ere. Rengelen hitzetan, "gauza konplikatua irudituko zaio ohituta ez dagoen bati, eta pentsatu ezinezko abentura dela bakarrik abiatzeko. Bada, taldeko batzuk ondo eza-gutzen ditugu errepideak eta horietan ibiltzen den trafikoa, eta badakigu taldeka nola eta nondik ibili gaitzkeen eroso, segurtasuna bermatuz".

**"DENA ERRAZTEN DA EMAKUMEEK EMAKUMEEKIN KIROLA EGITEN DUTENEAN"**



2023ko irailean, Mugitu Andoain ekimenaren baitan Tolosaldera eta Goierrri aldera egin zuten irteera. TXIRRINDANDOAIN

## Joseba Beroz andoaindarrak GRABNiko finala jokatu du

**GOMAZKO PALETA** Andoni Etxabe zarauztarrarekin batera bikotea osatuta, partida baten faltan finalera sailkatu dira

### Erredakzioa ANDOAIN

22 urtez azpiko binakako gomazko paleta txapelketan murgildurik daude Andoni Etxabe zarauztarra eta Joseba Beroz andoaindarrak. Aurreko asteburuan Gasteizko Mendizorrotza pilotalekuan Ortiz de Mendibil eta Murgiondo Arabako ordezkariak gainditu zituzten, eta garaipen horri esker finalean ariko dira. Maiatzean izango da hori. Lehenago, apirilaren 20an, ligaxkak azken partida jokatuko dute Iruñean Nafarroako ordezkarien aurka. Txapelketa honetan Gipuzkoa, Errioxa, Araba, Bizkaia, Nafarroa eta Iparraldeko selekzioak ari dira parte hartzen.

### Partidaren laburpena

Arabarrek aurrea hartu zuten, 8-6 ko markagailuarekin. Hasiera batean, Gipuzkoako bikoteari frontoiari tamaina hartzea kostatu zitzaion. Pilota motela



Garaileak, argazkian. ETXABE

atera eta 12 tanto jarraian egin zituzten. Markagailua iraultzea lortu zuten, modu horretan. Andoni Etxabek jokoaren ekimena hartu zuen eta azken tantoa ere berea izan zen. Bi-pareta eder batekin amaitu zen partida.



ORIAMENDI

## Eskudero ere finalaurrekoan da

**ERREMONTEA** BERRIA txapelketa azken txanpan da eta finalaurrekotan dira Irazu eta Eskudero. Larunbat honetan jokatu dira bi partidak. Alde batetik, Zaldúa II-Eskudero bikotea Jabalera-Goikoetxea Viren aurka. Beste finalaurrekoan aurrez aurre ariko dira Gurrutxaga-Aiestaran VI eta Irazu-Zaldúa I bikoteak. Jaialdia 16:30an hasiko da, Galarreta Jai Alai pilotalekuan.

## IRITZIA

ANDONI URBISTONDO URNIETA

## Itzuliko notak

**10 Josean Fernandez Matxin eta UAE:** Aldekoak eta kontrakoak ditu, baina asmatzen duenean meritua aitortu behar zaio. Estrategia aparta prestatu zuten hotelean eta dena pentsatu bezala irten zitzairen. Emaitza: Itzulia poltsikora, eta talde lan sentsazio ikaragarria. Pobre antzean, triste zihon Itzulia ederrestu du UAEren lanak.

**9 Juan Ayuso:** 21 urterekin tokia eskatzen ari da. Bere garaipenak izartxo bat erakutsiko du betirako, irabazi zuen ekitaldian faborito nagusiak erori eta lasterketa utzi zutelako, baina Ayuso ere erori zen, hirugarren etapam, eta oilarrak jausi ziren une erabakigarrian erorketa saihestu zuen. Bera izan zen indartsuena etapa erabakigarrian eta horrek ez dauka bueltarik.

**8 Mattias Skjelmose:** Gorantz datorren beste txirrindulari handi bat. Talderik gabe geratu zen UAEk gehien estutu zuen unean, baina ez zen berehalakoan belaunikatu. Keinu benetan polita eduki zuen Roglic-ekin Legutioko podiumean, maillot horia janzteari uko eginda.

**7 Primoz Roglic:** Ikaragarria bere sare sozialetan erakutsi duen argazkia, bendaz eta tiritaz josia. Izar handia da, baina badu zerbait erorikoekin, asko jausten baita. Hori bai, fuoriclasse-a da: Irungo erlojupekoa nola irabazi zuen, bidegurutze batean nahastuta ere. Olaberrian hartu zuen zartakoa hartuta ere irautea gauza handia da. Itzuli handietan Vingegaard eta Pogacar-i aurre egin diezaiokeen bakarretakoa da. Bide batez, jausi ziren guztiei osatze prozesu azkar eta ona!!!

**6 Etapa garaileak:** Lapeira, Hermans, Meintjes, Gregoire eta Carlos



Aurtengo podiuma. ITZULIA

Rodriguez... Itzulia maila handiko lasterketa izaten da, eta etapak irabaztea oso lantegi zaila. Irabazi zutenetako batzuk prestigio handia irabaziko dute etorkizunari begira.

**5 Ibilbidea Ipar Euskal Herrian:** Bazen garaia. Ea berriro itzultzen denerako ez diren beste lau hamarkada pasatzen. Ea behingoz hiru eskualde ezberdin ez, baino nazio bakarra garelako pentsatzen dugun. Itzulia baita munduan barrena garena erakusteko erakusleho garrantzitsua.

**4 Ibilbidea:** Egokia iruditu zait. Lehen erlojupekoak tarreak zabaldu zituen, lasterketa ireki, eta ibilbidea ez zen saldu zen bezain arriskutsua. Kanboko etapa ere ederra izan zen, Lapurdiko muinoetan, eta Legutiokoak zer eman zezakeen jakin gabe geratuko gara, zoritxarrez. Eibarkoekin garbi geratu da, beste behin, etapa hirian jarrita etapa askoz mugituagoa dela.

**3 Euskaldunak:** Hainbestean. Saiatu dira bigarren mailakoak urrutitik, baina hori oso zaila da egungo txirrindularitzan. Ion Izagirre atzera geratu zen Kanbon, erorita, eta Pello Bilbao onartu du gatz pixka bat falta izan zaiola onenekin egoteko.

**2 UCIko komisarioak:** Legutioko etapam hartu zuten erabakia aurrekaririk gabekoa da. Etapa neutralizatu eta ondoren aurretik zihozten sei etapa lehiatzea baimendu? Erorketarik gabe tropelak irentsiko zituen. Zergatik sei bakarrik, eta ez tropel osoa? Denak edo inor ez, ezta? Tristeena, ez dela azalpen sinesgarri eman.

**1 Abiaduraz eta teknologiaz:** Hausnarketa sakona merezi du gai honek. Remco Evenepoel 67 kilometro orduko abiadura zihon Kurtzetan behera jausi zenean. 90 graduko bihurtzea ematera zihon, malkar handian, eta heldulekua goitik heltzen. Arrisku gehitxo, ezta? Ba hori ekarri du bizikleten teknologia hobetzeak, errendimendua hobetzeak, eta beti buruan joan nahi izateak. Eta lasterketa hori nekez geldituko da, protagonistek eurek azterketa pausatua eta sakona egiten ez badute.

**0 Antolakuntza eta Legutioko podiuma:** Hartu zuen erabakia ulertu ezinik segitzen dut. Konpromisoak konpromiso dira, eta Legutiok, noski, etapa bukaera bat eta podiuma ikusteko ordaindu zuen. Baina etapa bukaera bluff bat izan zen, eta podiuma tristea. Ezinezkoa al da Legutio beste urte bateko etapa bukaerarekin saritzea? Benetako etapa batekin? Dozena bat lagun erietxera bidean, edo erietxean ziren, pronostiko larriarekin, eta podium-eko ekitaldia ezer gertatu izan ez balitz bezala eman zen...

## Jarraipena

Andoni Urbistondoren kronikak, Aiurri ez ezik, Goian eta Sakanako Guaixen ere argitaratu dira.



Kontzejupekoa, aurreko edizio batean. AIURRI

## Andoaingo Kontzejupekoari ekingo diote, datorren astean

**PILOTA** Apirilaren 16an eta 17an jokatu dira lehen partidak, eta Sanjuanak arte luzatuko da txapelketa

### Erredakzioa ANDOAIN

Kontzejupeko txapelketari ekingo diote aurki, formatu berri-zailearekin. Gaztetxeko pilota txapelketaren sailkatze beretsua izango du. Ligaxkan ariko dira, lehenik, multzoka antolatuta. Partidan horien sailkapenaren arabera sortuko dira ondorengo kanporaketak.

Txapelketa herrikoien ohiko prozedurari jarraiki, andoaindar orok eduki du izena emateko aukera. Guztira 18 bikotek eman dute izena. Antolatzaileek adierazi dutenez, apirilaren erdialdean hasiko da eta Sanjuanetan izango da finala; Santakruzetan atsedena egingo dute.

Txapelketak ikusmira handia sortu ohi du frontoiak dituen berezitasunengatik. Hainbat herritan bezala, udaletxe azpiko frontoia txikia eta baxua da; zutabez osatua dago eta errebo-tearekin jokatzeko aukera ematen du.

Horiek horrela, jokamoldea asko aldatzen da eta pilotariak frontoiaren exigentziara moldatu behar izaten dira. Partidak biziak izaten dira, intentsitate handikoak.

### XII. edizioa

Duela hamabi urte jokatu zen lehen txapelketa, eta, orduztik hainbat pilotari igaro da bertatik. Urteetan, Gaztelekuko pilotariak izan dira parte-hartzaile nagusiak ikusleei ahalik eta ikuskizun handiena eskaintzeko. Oraingoan, berriz, txapelketaren izen-emate aukera irekitzea erabaki da, gainontzeko herritarrek ere, Andoaingo udaletxepean kokatuta dagoen frontoiaz gozatzeko aukera edukitzeko. Hamabigarren edizioan den arren, izen-ematea irekiko lehen aldian izango da. Azken aldian, bada entrenatzen ari den herritarrik.



XIV orduak ospatuko diren urtea izanik, jendetza espero da. AIURRI

## Andoain-Andoain mendi zeharkaldia, igande honetan

**MENDIZALETASUNA** Euskaldunak antolatu du eta izena emateko epea ostiral honetan amaituko da

### Erredakzioa ANDOAIN

Apirilaren 14an izango da, igandearekin, eta partaide asko espero da. XIV orduak egiten diren urtea izanik, Tolosaldean eta Gipuzkoa osoan ehunka mendizale urte olinpikoan ospatzen den proba horri begira daude. Prestaketa modura, beraz, Andoaingo Euskalduna Mendigoizale Elkarteak antolatutako proba oso egokia da. Ohi bezala, Andoain-Andoain zeharkaldiak hiru aukera eskaintzen ditu. Hain zuzen, luzea (42 Km., 2.000 metroko desnibelarekin), Motza (21 Km., 900 metroko desnibelarekin), eta familia girokoa (10 Km.). Izena emateko epea ostiral honetan amaituko da, eta prezioa 13 eurokoa da. 10 kilometroko ibilbidea egiteko, berriz, egunean bertan eman ahal izango da izena. Helduek 5 euro ordainduko dute, eta haurrek doan.

### Edizio berezia, aurtengoa

Andoaingo eta bailarako mendizaleek bere agendan ondo gordeta daukaten hitzordua da Andoain-Andoain mendi ibilaldia, eta gainera, badakite berezia izango dela, ospatzen hasi zenetik mende erdia betetzen baita aurtengoa.

Familia-giroko irteerak Aduna eta Belkoain aldera joko du. 21 kilometroko txango motza, Andoaingo lur eremuan egingo da. Eta azkenik, 42 kilometroko luzeak, Aiztondo bailarako herri eta mendigainak zeharkatuko ditu.

Euskalduna Mendigoizale klubak Kale Nagusia 31n dauka bere egoitza, Correos-eko bulegoan ondoan.

Honako hauexek harremantarako bi telefono zenbakiak: 943 592 232 eta 688 684 028. Posta elektronikoa, berriz, euskaldunamt@yahoo.es.



Artxiboko irudia. UKE

## Garaipena lortuta amaiera eman zioten ligari

**ESKUBALOIA** Leizaran Ernio 2. postuan sailkatu da, eta Urnieta Artola Harategia hamargarrenean

### Erredakzioa ANDOAIN

Azken urteotako erregulartasuna berretsi du Andoaingo taldeak, eta, beste urte batez, igoera fasea jokatzeko sailkatu da. Denboraldi borobila, beraz, Gipuzkoako 1.Lurraldeko senior gizonetako ligan. Hamabi taldeko eta hogeita bi partidako ligan, bigarren sailkatu da. Hamalau partida irabazi ditu, denera. Hamargarren postuan sailkatu da, berriz, Urnieta Artola taldea. Aritzatalde eta Elgoibar taldeak dira sailkapena ixten duten taldeak.

Aurreko asteburuan jokatu zen azken jardunaldia. Sailkapeneko azken postuan dagoen Elgoibarren kantuan denboraldiko azken garaipena eskuratu zuen Urnietak (25-34). Leizaranek, berriz, Bidasoaren kantuan irabazi zuen (27-29).

### LIGA I SAILKAPENA

1	Laubide Legazpi	37
2	Leizaran Ernio	33
3	Ordizia	30
4	Soraluze	28
5	Bidasoa	26
6	Urola	25
7	Mugarri Arrasate	21
8	MEK Eibar	20
9	Donibane	18
10	Urnietak	15
11	Aritzatalde	11
12	Elgoibar	0

## Iturzaeta memoriala, Sorabillan

Emakumezkoentzako eta gizonzkoentzako txapelketa, ezaguna denez, Sorabillako frontoian jokatu da. Maiatzean abiatuko da baina izena emateko epea datorren apirilaren 22an amaituko da.

Izen ematea WhatsApp bitartez egin behar da 634 40 31 14 edo 676 15 32 30 telefono zenbakitara joz. Bikoteko 20 euro ordaindu behar dira, eta kamiseta nahi izatekotan 30.


Aratugiari dagokionez, partidak jokatzeko egutegia bete beharko da. Partiden atzerapenik ez da onartuko, baina ordezkoei jokatzeko aukera izango dute. Txapelketaren egutegia aldarazi dezakeen aldagai bakarra eguraldia izango da.

Gainerakoan, partidak larunbatero eta igandero jokatu dira Sorabillako pilotaleku berezian.

## Avilesen irabazle

### DUATLOIA

Koldo Velasco eta Maria Rengel Zumeatarra taldeko kideak podiumeko lehen postuan sailkatu dira Avileseko Duatloian, 25-29 urte arteko mailan. Espainiako Duatloi Txapelketa zen, era berean. Hauxe zen burutu beharreko lana: 9 kilometro lasterka, 36 kilometro bizikletan eta beste 5 kilometro korrika. Balio handia duen garaipena da.



ARTXIBOKO IRUDIA

## HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

## OSTEGUNA 11

**ANDOAIN Erakusketa**

EmPoderArte Emakume Artisten Nazioarteko Elkartearen erakusketa da, non arte plastikoen eta ikus-entzunezkoen diziplina ugari erabiltzen dituzten. Tartean dira Andoaingo artisten lanak.

**Bastero. Azken eguna: Apirilak 20.**

**ANDOAIN Bisitarien Etxea**

Leitzaran Bisitarien Etxea zabalik da. Apirilean eta maiatzean asteburuetan martxan izango da.

**Ordutegia: 10:30-18:30.**

**Leitzaran Bisitarien Etxea.**

**ANDOAIN Aurkezpena**

Euskal Herriko Bollotopaketak izango dira Leitzan, apirilaren 26tik 28ra bitarte. Hala, aurkezpenak egiten ari dira, tokian-tokian, baita Buruntzaldean ere. Tailerra, aurkezpena eta triki-poteoa iragarri dituzte Andoainen.

**16:30, Irunberri. Tortilla eta tailerra.**

**18:30, Plaza Morea. Aurkezpena.**

**ANDOAIN Ospakizuna**

Pintxo-pote berezia.

**19:00-21:00, Xarma.**

## OSTIRALA 12

**ANDOAIN Kontzertua**

Izaro kantariak disko berriena aurkeztuko du Andoainen.

**20:00, Bastero. Sarrerak agortuta.**

**ANDOAIN Deialdia**

San Juan jaien hasierako txupina botatzeko hautagaiak herritarrek proposatu ditzakete. Bastero kulturgunean, Atarian edo Ambrosia Olabiden edo andoain.eus gunean aurki daitekeen formularioa osatu behar da horretarako.

**Azken eguna: Apirilak 12.**

## LARUNBATA 13

**ANDOAIN Ekitaldia**

Andoainen 36ko Gerran fusilaturiko omenezko ekitaldia. Lore-eskaintza, dantza, txalaparta, bertsoak eta Banda Errepublikarraren emanaldia.

**12:00, Etxeberrietako Alfaro plaza.**



Dantza performancea, igande honetan. AIURRI

**URNIETA "Atxine" dantza performancea**

Emakume bat eta bere burukoa eszenan. Bere bizi zikloan bidean duen karga emozionalari eta kulturalari erreparatu dio sinbologiaz aldatzen joango den objektu batekin batera; bertatik jaioko da, bertan babestuko da, eta bertatik isuriko ditu ahotsa, odola, izerdia eta bizitza.

**Apirilak 14, igandea. 19:00, Sarobe.**

**ANDOAIN Ospakizuna**

Goikoplazako tabernaren urteurrena.

DJ Ezekiel.

**12:00-14:00, Xarma.**

Malkogarriyak.

**19:00-22:00, Xarma.**

## IGANDEA 14

**ANDOAIN Mendi zeharkaldia**

Andoain-Andoain Ibilaldiaren 50. edizioa antolatu du Euskaldunak, igande honetarako.

**07:00, Ibilbide luzea. 42 Km.**

**08:00, Ibilbide ertaina. 21 Km.**

**09:00, Ibilbide motza. 10 Km.**

**Irteera: Ondarreta ikastetxea.**

## OSTEGUNA 18

**ANDOAIN Antzerkia**

Erretiroa hartzeaz dagoen langile batek eta ordezkaturiko duen pertsonak bost egunez partekatuko dute lantokia, itxuraz ezer gertatzen ez den biltegi hutsu batean. Zuhaitz Gurrutxaga eta Iker Galartza.

**20:00, Bastero. 12 euro**

## IGANDEA 21

**ANDOAIN Haur antzerkia**

"Teilatupean" antzezpena.

Bertoak, koplak eta beste.

**12:00, Bastero. 4 euro.**

## ZINEMA

**ANDOAIN****BASTERO****Radical**

Lar, 13. 19:30,

22:00.

Ig, 14.

19:30.

Astl, 15. 19:30,

22:00.

**Un rey**

**supermono**

Lar, 13. 17:00.

Ig, 14. 17:00.

**Los niños de**

**Winton**


Lar, 20. 19:30,

22:00.

Ig, 21. 19:30.

Astl, 22. 19:30,

22:00.



## SINOPSIS

**Radical**

**Zuzendaria, gidoia:** Christopher Zalla. **Aktoreak:** Eugenio Derbez, Daniel Haddad, Jennifer Trejo, Mia Fernanda Solis, Danilo Guardiola, ... **Herrialdea:** Mexico (2024). **Hizkuntza:** Gaztelania. **Generoa:** Drama. **Iraupena:** 125 min.

## Irakaskuntza, eta beste

Benetako istorio batean oinarrituta, bazterrean utzitako haurrez, ustelkeriaz eta indarkeriaz betetako Mexikoko muga-hiri bateko maisu baten istorioa kontatzen du. Bere

ikasleen jakin-mina eta potentziala desblokeatzeko metodo erradikal berri bat frogatzen du, baita bere distira ere. Derbez aktore nagusia Coda film ezagunean ere ageri da.

## FRESADOREAK-TORNULARIAK

Lehen mailako ofizialak behar ditugu, gutxienez 5 urteko esperientziarekin, fresadore eta tornulari lanak egiteko

*Interesatuek bere CVa ondorengo helbidera bidali beharko dute.*

**2024/04/21 baino lehen**

Talleres Mitxelena, Koop,  
Eziago poligonoa 21, 20120 Hernani

**info@talleresmitxelena.eus**

**mitxelena**

NEURRI HANDEKO  
HEKAZARZARDA | LARGE-SCALE CUSTOM  
MACHINING



**andoaINDARRA**  
**euskaraz**



Oroituz elkarteak herritarrei gonbitea luzatu die, Alfaro parkera bertara daitezten. AIURRI

## Oroituzen ekitaldia, larunbatean

Andoainen frankismoak zapaldu zituen herritarrak gogoan hartuko dituzte, eguerdiko 12:00tan hasita

### Erredakzioa ANDOAIN

Alfaro parkean, 'Goiztirian, arimaren garrasia' eskulturaren aurrean egingo dute ekitaldia, eguerdiko 12:00etan hasita. Herrian eraildako eta desagerrarazitako hogeita bost lagunei ez ezik, bestelako erreprezio motak (atxiloketak, langile bataloietan esklabutza, exilioa, ile mozketak, euskararekiko bazterketak, inkautazioak, isunak...) ere jasan zituzten ehunka herritarrei egingo zaie gorazarre. Horientzat egia, justizia eta erreparazioa eskatuko dute. Aldi berean, Andoaingo memoria historikoa berreskuratzearen alde testigantza eman

izan duten eta azken urtean zendu diren pertsoneri esker ona azaltzeko probestuko dute ekitaldia; hain zuzen, Ixiar Arin, Rosarito Urretabizkaia eta Mikel Ansa dira horiek.

Azken urtetako ohiturari jarraiki, Maizorri txalaparta eskolako, Urki dantza taldeko eta Punttuka bertso eskolako kideek parte hartuko dute lore eskaintzarekin batera lehen zatian. Bigarrengoan, berri, herriko musikari eta abeslariak osatutako Banda Errepublikanoak kantutegi antifrankistako hainbat abestiekin emanaldi berezia egingo du, Joxe Mari Oiartzabalek zuzenduta.



AIURRI

## Mus-txapelketa, Ontzan

Joxe Mari Erkizia mus txapelketako izen-ematea zabalik da, hurrengo apirilaren 19ra bitarte. Bikote bakoitzak 50 euro ordaindu behar du, finala jokatu den eguneko afaria barne. Interesa duenak elkarteetan bertan topatuko du izena emateko orria. Aski ezaguna da txapelketa, aurtengoa XLVIII. edizioa izango baita.

## Urteurreneko ospakizunak

Andoaingo Goikoplazako Aterpe taberna zena Xarma berrizendatu zuten, orain urtebete. Tabernako arduradunek urteurreneko ekitaldi-sorta iragarri dute asteburuari begira.

Apirilak 11, osteguna: Pintxo potea. 19:00-21:00.  
Apirilak 13, larunbata: Bermuta, DJ Ezekiel. 12:00-14:00. Malkogarriyak. 19:00-22:00.



XARMA

## ZORION-AGURRAK



ANDOAIN  
**Zorionak Manoli**  
Martxoaren 25ean urteak bete zenituen. Amarik eta amonarik onena zara! Asko maite zaitugu! Zure alabak eta bilobak.



ANDOAIN  
**Zorionak Eneko**  
Muxu handi bat Eneko, asko maite zaitugu!



ANDOAIN  
**ZORI-ONAK Julen**  
Martxoaren 25ean 12 urte bete zituen. Laster DJ aritzeko kontratatuko zaitugu, mux mux. Etxekoak.



ANDOAIN  
**ZORI-ONAK Ibai**  
Martxoaren 8an bete zituen urteak. Santakruzetarako betaurreko berdeak prest! Amz...amz.



ANDOAIN  
**Zorionak Eli eta Laiene!**  
Martxoaren 25ean Elik eta apirilaren 3an Laienek bete zituzten urteak. A ze bi lore, ama ta alaba! Mux mux.



ANDOAIN  
**Zorionak bikote!**  
9 urte egingo dituzue! Beti bezala jarraitu, asko maite zaituztegu! Etxekoak.

## #AndoainBizitzeko



@AndoaingoUdala

Jarrai gaitzazu gure sare guztietan!

## Ezagutu gure sare sozialetako kanal guztiak.

Bertan Udalak zabaldutako albistek, agenda, argazkiak... aurkitu ahal izango dituzu.



@AndoaingoUdala

Kontu berria!



Andoaingo Udala

Kanal berria!



@AndoaingoUdala



Andoaingo Udala



Andoaingo Udala



www andoain.eus



**Apirilak 18, osteguna  
20:00  
Bastero Kulturgunea  
ANDOAIN**

*Erretiroa hartzean dagoen langile batek eta bere lanpostuan ordezkatuko duen pertsonak bost eguez partekatuko dute lantokia, itxuraz ezer gertatzen ez den biltegi hutsu batean.*

**4 sarrera bikoitz zozkatuko ditugu  
Aiurriko Andoaingo eta Urrietako harpidedunen artean.**

- Parte hartzeko modua:  
\* Idatzi "Txalo" mezua eta bidali whatsapp: 619 163 537.  
\* Irabazle bakoitzak bina sarrera irabaziko ditu.  
\* Saridunaren berri hurrengo astekean emango dugu.  
\* Parte hartzeko azken eguna: Apirilak 15, astelehena

